



Oihana ikastolako ate idekiak

2025ko otsailaren 8an

EUSKARA : IKASTOLAREN FUNTSA

Zure haurra Oihana ikastolan emanez, euskara hautatu duzu harentzat, irakaskuntza eta komunikazio hizkuntza gisa. Ondorioz, funtsezkoa da hurrekin, talde profesionalarekin eta gurasoen artean euskaraz mintzatzea, bakoitzaren gaitasunaren arabera (ohiko praktika, ikasketa edo zenbait hitzen erabilpena). Guraso erdaldunei dagokienez, ahal oroz ikaste prozesuan sartzea garrantzitsua da. Ikus ikastolako hizkuntza politika zehazten duen Euskaraz Bizi Hitzarmena.

telefonoa : 05 59 55 41 72

bulegoaikastola@gmail.com (administrazioa)

ikastola.oihana@gmail.com (pedagogia taldea)

<https://oihana-ikastola.eus/>

ELKARTE BIZITZA: Elkarteko kideak gurasoak gara.

Egitura:

- **Administrazio kontseilua eta bulegoa:** Zuzendaria, irakasleen ordezkaria, eta gurasoek osatzen dute. Ikastolako langileen, aurrekonduaren, kanpo harremanen, Biltzar Nagusiaren eramatearen... arduradun da.

- **Ikastolako Biltzar Nagusia eta Ikastolen kontseilua:** Erabakitzeke bi instantzia horiek, bata barnekoa bestea SEASKA federaziokoa, gure elkartearen gune « politikoak » dira. Hor dira eztabaidatzen, bozkatzeko eta erabakitzeke gure ikastolarentzat eta Seaskaren norabide orokorarentzat garrantzitsuak diren gai guztiak. BNan familia bakoitzak bozka bat du.

Gurasoen administrazio betebeharrak :

Paperak Gurasoek paper administratiboak (Baionako egoitza agiria eta CAFeko QF agiria) sartzean ekarri behar dituzte. Baionatik kanpo bizi diren gurasoek dagokien herriko etxeari forfetaren eskaera gutuna helaraziko diote. Osasunari doakion atala zehazki bete behar da (eritasun kronikoak, alergiak, txertoen agiria). Irudi eskubideak izenpetu behar dira eta haurtzaindegiko asistentzia ere bai.

Ordainketak Kotizazioak: familia koziantearen eta haur kopuruaren arabera finkatzen dira eta diru hartze automatikoaren bidez pagatu behar da. Euroz edo euskoz egin daiteke. Haurtzaindegia: Ordainduz, 7:30etatik 8:20etara/17:00etatik 18:30etara.

Derrigorrezko parte hartzeak:

Familia bakoitzak - Ikastolako batzorde batean parte hartu behar du.

- Ikastolen egutegiak eta Herri Urratseko txartelak saldu behar ditu, aitzinetik hartua da.
- Herri Urratsen lan txanda bete behar du.
- Baionako bestetan bi lan txanda bete behar ditu.
- BILEko lan txandetan, parte hartu behar du. (bat urtean derrigorrez)
- Garbiketan parte hartu behar du, hiruhilekoan bizpahiru aldiz ostiralez. Txandak aitzinetik AKk finkatzen ditu.

Ikastolan sartzeko onarpen baldintzak:

- Haurrak sartze egunean 2 urte eta erdi beteak ditu eta garbia da.
- 4 urtetik goiti, onarpena euskara mailak baldintzatuko du (pedagogia taldeak ebaluatua).

ORDUTEGIA

ASTELEHENA	ASTEARTEA	OSTEGUNA	OSTIRALA
8:30	8:30	8:30	8:30
12:00*	12:00*	12:00*	12:00*
EGUERDIKO PAUSA TENOREA			
14:00	14:00	14:00	14:00
16:30	16:30	16:30	16:30

* Ama eskolako hurrek lehenago jaten dute.

HAURTZAINDEGIKO TENOREAK :
7:30-8:20 eta 16:30-18:30